

EAEko 130 herri liburutegitako katalogoetara Internetez sartu ahal izango da

MIKEL LIZARRALDE - DONOSTIA

Euskal Autonomia Erkidego-ko herri liburutegien kudea- keta eta eskaintza bateratze- ko bidean, Eusko Jaurilaritza- ko Kultura Sailak Euskadiko Liburutegi Sistemaren Sarea osatu du eta hara Internet bi- dez sartzeko sistema infor- matikoa jarri du abian. Ho- rren bitartez, 130 liburutegi- tako katalogoak kóntsulta ditzake bazkideak [www.libu- rutegiak.euskadi.net/katalo- gobateratua](http://www.liburutegiak.euskadi.net/katalogobateratua) helbidean.

Orotara, 500.000 erregis- tro inguruk osatzen dute gaur egun katalogoa, eta irakurle- ek izango duten bazkide txar- tel bakarrarekin, haien gaine- ko kontsultak ez ezik, sareko liburutegi guztiei egin ahal izango dizkiete material es- kaerak.

Miren Azkarate Kultura sailburuak atzo aurkeztu zuen liburutegi sarea *on-line* jartzeko proiektua, eta aurre- ratu zuenez, urte amaierara- ko EAEko herri liburutegi gehienak egongo dira bertan; 270 inguru. Donostiako eta Bilboko sareak oraindik ez dira integratuko proiektuan, bestelako sistema bat erabil- tzen dutelako. Nolanahi ere, 2006tik aurrerako asmoen artean sartu zuen Azkaratek.

Egitasmo honekin hiru hel- buru bete ahal izango dira Az- karaten iritziz: «Giza baliabi- deen optimizazioa, liburuzai- nen arteko elkarlana eta libu- rutegien informatizazioa».

Liburutegi Nazionala

Bestalde, Euskadiko Liburu- tegien Bilgunea ere osatu da. Hor, udal liburutegiez gain, EAEko beste hainbat liburute- gi bildu dituzte; besteak bes- te, instituzioetako liburute- giak (Jaurilaritza, aldun- diak...), unibertsitateetako- ak, Lazkaoko beneditarrena, Labayrukoa, Sancho el Sabio Fundazioarena eta Eresbil musikaren euskal artxibokoa.

«Liburutegi Nazionala» sortzeko bidean, Azkaratek ezinbesteko pausotzat jo zuen katalogoak on line jar- tzeko pausoa: «Erabiltzailea- ri eskaintza bateratua ematea eraikin bat izatea baino ga- rrantzitsuagoa da». Liburute- gien Legearen zirriborroa da- tozen hilabeteetan onartu eta udazkenean Eusko Legebil- tzarrera eramateko moduan egongo dela adierazi zuen Azkaratek.